


### 3. DISTRIBUZIO ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Gure proiektua hiru kanal nagusiren bidez garatuko da, eta horri esker bezeroei zerbitzu eroso eta malgu eskaini ahal izango diegu.

- ☐ Gure webgunea izango da funtzionamenduaren oinarria, **denda online bat egingo dugu**. Webgunean bezeroek produktu guztiak ikusi, konparatu eta eros ditzakete modu azkar eta seguruan. Bezeroek edozein gailutatik eta edozein ordutan erosketak egiteko aukera izateko eta horrela oso eroso eta azkarra izango da. Konfigurazio **pertsonalizatua**, non bezeroek neurriak, materialak... (adibidez, binilo dekoratiboak) aukeratuz, prezio zehatza berehala ezagutuko duten. Horrela, webgunea ez da soilik transakzio-puntua izango, baizik eta aurre-salmenta harremana modu eraginkorrean kudeatzeko funtsezko tresna.



- ☐ Bestalde, produktu guztiak **biltegi batean gordeko ditugu**, kontrol eta antolaketa egokia edukitzeko. Biltegi horrek gure stockaren kudeaketa erraztuko digu eta eskaerak modu eraginkorrean prestatzeko aukera emango digu. Guri lana errazten eta erosoago egiten. Horrela, bezeroek eskatutako produktuak egoera oso on batean mantenduko dugu. Ere gure biltegia **Showroom (Erakusgela)** edo Esperientzia Zentroa izendatu beharko litzateke, non funtzionamendua, isolamendu termikoaren eraginkortasuna eta diseinuaren dotorezia erakuts daitezkeen. Bezeroek produktua maketen bidez, **ikusi, ukitu eta probatu** ahal izan dezaten (isolamendu termikoa eta mekanismoen funtzionamendua), horrela erosi aurretik konfiantza sortuz.



- ☐ Azkenik entrega eta Logistika Aukerak Hobetzea proposatzen dugu, bezeroei erabateko malgutasuna eskainiko ditugu, bi entrega aukera jarriko ditugu haien eskura.
  - ☐ Eskaerak zuzenean etxera bidaltzeko aukera izango dute, erraztasun eta erosotasun askos. Garraiolari tekniko ziurtatuak erabiliko dira. Bidalketa hau, funtsezkoa dena, Instalazio Zerbitzuaren datarekin koordinatuta egingo da, bezeroak ez dezan materiala denbora luzez gorde behar izan.
  - ☐ Gero nahiago dutenek biltegira bertara joan ahal dira eta produktuak han jasotzeko aukera izango dute. Aukera horrek bidalketa gastuak aurrezteko aukera emango du, eta entrega pertsonalizatuagoa nahi duten bezeroentzat oso praktikoa izango da, lan-obraren kudeatzailearekin zuzenean koordinatuta egongo da.

## **Komunikazio kanala**

Gure bezeroengana modu eraginkor eta pertsonalizatuan iristeko, komunikazio-kanalak bezero-segmentu bakoitzera egokituko ditugu. Ezaugarri, behar eta egoera desberdinak kontuan hartuta, komunikazio-bide egokienak erabiliko ditugu kasu bakoitzean, informazioa argi, eroso eta eskuragarri helarazteko. Horretarako, kanal digitalak zein aurrez aurreko harremanak erabiliko ditugu, betiere bezeroaren profilaren arabera, arreta hurbila eta jarraitua bermatuz prozesu osoan zehar.

### **1. Espazio gutxiko etxeetako jabeak edo erreformak egiten dituztenak**

Posta elektronikoz bidez, sare sozialen bidez (Instagram, tiktok, Whatsapp) eta aurrez aurre jakinaraziko diogu bezeroari. Posta elektronikoz, sare sozialen bidez edo aurrez aurre egingo diogu eskaera, eta sare sozialetara igoko dugu, gure lana nola funtzionatzen duen eta marketinean nola erabiltzen dugun ikus dezan. Eskaera betetakoan, bezeroarekin harremanetan jarriko gara, eta harekin harremanetan egongo gara beti, gure leihoa muntatzen amaitu arte

### **2. Mugikortasun murriztua duten pertsonak**

Horiekin, agian, ezin da zuzeneko harremanik izan, haien legezko tutorearen edo familiaren bidez joko baitugu haiengana. eta elkartearen bidez ere informazioa jasoko dugu. Eta guregana jo dezakete beste edozeinek bezala sare sozialen, irratien, telebistaren eta abarren bidez.

### **3. Diseinua eta luxua bilatzen dituzten bezeroak edo promotoreak**

Edozein motatako tratua izango dugu haiekin, sare sozialen, whatsappen edo dena delakoaren bidez. Eurekin zuzenean edo euren ordezkarien bidez hitz egingo dugu. Kalitate oneneko gure produktu-sorta eskainiko diegu, eta gure produktu eta prezio onenak emango dizkiegu